

Arrasate


P R E S S

2001.eko
mailetaren 19a
641. zenb.



Kenci Arrasate
saskibaloia taldea

Saskibaloia bizirik herrian



xa itxa kutxa


Edertasunaren Gida

CARMEN

**Ile apaindegia
Solariuma**

Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63

Jose Antonio
GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA



Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

SUSi
ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

LEA



Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Lurrindegia
perfumeria



ZARRAOA

Kanpandorpea, 4
Tel.: 943 79 12 19

- ▲ Larruzko artikuluak
- ▲ Bisuteria
- ▲ Opariak

*Aholkularitza
estetika eta
makilajea.*

LANCASTER

GUERLAIN

Elizabeth Arden

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

MA

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Lore



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA O'NEAL

Ayer

HR

CLARINS

BIOHERM

VALMONT

Hilero aterako dugu Edertasun Gida.
Zure zerbitzuak iragarri nahi izanez gero,
deitu 943 71 23 91 telefonora

urteurrenak

Besaideko monumentua

■ **65. zenb.**
(1990-05-25)

Joshin Ogata, Italian bizi den eskultore japoniarra, iraileko hirugarren domekan Besaiden inauguratuko zen eskultura lan-tzen hasi zen Udala auzoan. Horretarako, Markinatik ekarritako 26 marmol harritzar erabili zituen. Besaiden jarri beharreko monumentuak eta ingurueta egin beharreko lanak 30 milioi pezeta kostatu ziren.


Udalak Gelmari espedientea egin

■ **65. zenb.**
(1990-05-25)

Udalak Gelmari eskatu zion jaurtitzaren kearen txostena aurkezteko, eta bete ez zuenez, udalak jaurlaritzari eskatu zion Gelmari espedientea egiteko eta milioi bat pezetako isuna ezartzeko. Gelmak, bere aldetik, inbertsioak iragarri zituen abuzturako, galdategitik ateratzen ziren gai kutsakorrek hobeto iragazteko eta ingurueta bizilagunen kexa eta salaketak saihestu ahal izateko.

Udaletxea berritu

■ **65. zenb.**
(1990-05-25)



Udal idazkaritzak udaletxea berritzeko lanak zehazteko txostena aurkeztu zuen. Txostenaren arabera, udaletxe zaharreko lanak ekainean amaituko lirakeke. Gero, eraikina ondo garbitu eta altzariak sartu ondoren, ekainaren 20an, San Juan jaiaren aurretik, udaltzaingoa egoitza berritura pasatu zen eta uztailearen 5ean, gainerako udal sailak.

besteek esana



Felix Iñurrategi Goi Mendiko Eskolaren bitartez eskaladarako teknika hobetu ahal izan dugu Pirinioetan igaro ditugun bi asteetan. Bat, Villanovan, eta beste bat, Benasquen. Horrez gain, Terradets eta Riglosen ere izan gara. Ni (Ibrahim) Arrasaten sukaldaritza ikasten ere izana naiz. Etorkizun handia daukan ogibidea da sukaldaritza, gustuko dut»

Mohamad Ibrahim eta Rustan Ali

GOI MENDIKO SHERPAK
KARAKORUMEN
El Correo

(2001eko maiatzaren 14a)




ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Iretia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Katiel Urzelai. **Publizitatea:** Arantzazu Lagunita eta Natalia Martínez. (Tel.: 943 71 23 81/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Disenua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakia:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odrozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 **ARRASATE PRESS paper** birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntzaz



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntzaz



Eusko Jaurtitzako Kultura Sailaren laguntzaz

aurkibidea

- Lehen begiratu a **3**
- Asteko hitzorduak **4**
- Inkesta **5**
- Astearen errebasoa. **6**
- Orain eta hemen **7/8**
- Hauteskundeak **10**
- Txutxumutuak **11/13**
- Aurrez aurre **14/15**
- Kirolak jokoan. **16/21**
- Auzoz auzo **22/23**
- Beheko dendatik. **23/24**
- Uhinetan barrena **25**
- Foto zaharra **26**



ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospiti. 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 14:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzaileak 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Arebakalea 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (lberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

umeen danborrada

Zabalik dago umeen danborradan parte hartzeko izena ematea. SUDC elkarteke edo

zein kiderengana jo dezakezue horretarako.

casinoko kideei deia

Maiatzaren 23an, Casino elkarteak ohiko eta ezohiko batzar orokorrak egingo ditu, 19:00etan. Hirigintza araudi berria dela eta,

oraingo egoitzaren zati bat bota egingo dute, eta horren ondorioz, egoitza berria erosteko asmoa dute.

mendi astea

Besaide Mendizale Elkarateak mendi astea antolatuko du. Maiatzaren 21etik 27ra izango da. Egutero hitzaldi bat izango da, Monterronen, 19:00etan. Bestalde, 26an mendi

bizikleta irteera egingo dute, eta 27an, mendi irteera. Izena ematea maiatzaren 22an edo 23an egin beharko da.

1950ekoei deia

1950ean jaiotakoek ekainaren 2an egingo dute kinto ospakizuna. Izena ematea Kutxan

edo Euskadiko Kutxan egin beharko da, maiatzaren 26a baino lehenago.

pako iriondo

Pako Iriondoren omenaldi astean, ekainaren 2an, Jordi Pons mendizalearen *La Ruta Polar* filma eskainiko da Alai zinemaren, 19:30ean. Bestalde, zabalik dago Iriondo-

ren omenezko bazkarirako izena emateko epea. Besaiden edo Euskadiko Kutxan erreserbatu ahal izango dira txartelak.

eskuen bidezko terapia

Reiki eskuen bidezko terapia ikastaroa antolatuko du Arrasate Yoga Elkarateak maiatzaren 26 eta 27 rako. Zapatu arratsaldean eta dome-

ka goizean izango dira eskolak. Izena emateko, deitu 943 79 35 76 telefonora.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 18

- Irizar, Erguin

Zapatua, 19

- Amezua, Santa Marina

Domeka, 20

- Zabala, Zarugalde

Astelehena, 21

- Ruiz, Magdalena

Martitzena, 22

- Morales, Araba

Eguaztena, 23

- Azkoaga, Ferrerías

Eguena, 24

- Azkoaga, Iturriotz

Txatxilipurdi Elkarateak ondoko lanpostuetarako:

BEGIRALE

TEKNIKARI

ZERBITZUETAKO ERAGILE

lan poltsa osatu nahi du.

Aisialdian esperientzia eta euskalgintzan jantzia egotea baloratuko da.

Curriculumak aurkezteko epea ekainaren 15ean bukatuko da.

Curriculumak bidaltzeko helbidea:

Pablo Uranga, 6 behea. Arrasate.

Tel: 943 79 54 46 / 943 77 17 39



Izan zara inoiz osoko bilkura baten?

Udaleko osoko bilkurak jendeari irekiak dira, eta edonor joan daiteke.



Jose Pacho
(Langilea)

Ez. Interesik ere ez dut: berezi samarrak eta aspergarriak dira.




Maria Iturbe
(Langilea)

Inoiz ere ez. Ez zait interesatzen.



Fernando Iñurritegi
(Erretiratua)

Ez. Ez dut izan astirik, ezta gogorik ere.



Jesus Giner
(Langilea)

Gustatuko litzaidake, baina asti faltagatik ez naiz sekula joan.



Mari Carmen Galdos
(Langilea)

Irratitik entzun izan dut osoko bilkuraren bat, baina sekula ez naiz egon holako baten.



Jose Antonio Gil
(Langilea)

Ez, inoiz ez, ez zaizkit interesatzen.




Teresa Martin
(Erretiratua)

Ez, orain arte lan handia izan dut eta badut oraindik ere, osoko bilkuretara joateko!



Naroa Elortza
(Ikaslea)

Ez, sekula ere ez.

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

UGARTE

Industria hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-793412

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

USTEAK USTE

Beldurra?

Hedabideek gugan izugarriko eragina izaten jarraitzen dute. Argi geratu da, beste behin, pasa den asteburuan amaitu zen kanpainari eta Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeen emaitzei begiratzen badiegu. Hedabide gehientsuenak kontrolatzen dituztenen aldetik, EAEko batzuen askatasun ezari eta izuari erantzuteko deialdi eraginkorra egin zuten; hain zuzen ere, gobernuko alderdi nagusia aldatzekoa, hori formula magikoa balitz moduan.

Azkenean, erantzuna aurkakoa izan da, gobernuko alderdi nagusia indartu da-eta, baina modu berean "beldurra" nagusitu da eta horrek emaitzak izugarri baldintzatu ditu. Hortaz, gizarteak ez du aldaketarik gura izan, are gehiago aski ezaguna duen eta agian asperdura ere ematen dionaren aldeko apustu sendoa egin du. Ez dakit beldur kontua den edo erosotasun hutsa, baina daukagunari hain gogor eusten badiogu, zaila egingo zaigu beste zerbaiti heltzea.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Liburutegia interneten

Arrasateko liburutegia sarean jarri du Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko beste 77 liburutegi publikorekin batera. Horrela, webgunera sartuz gero, Arrasateko liburutegiko informazioa eskura dezakegu. Eta ez bakarrik liburuen gainekoa, baita literatura lehiaketan, katalogoen, telefonoen eta abarren gainekoa ere. Eta oraindik internet erabilia liburuen maileguak egiteko aukerarik ez eduki arren, laster eskainiko dute hori ere. Halaber, Eusko Jaurlaritzak adierazitakoaren arabera, urte amaierarako informazio gehiago jarriko du sarean.

Helbidea hau da: www.kulturaondarea.org edo www.euskadi.net/kultura.

■ Kiroldegiak zabalik

Joan den egubakoitzean, Iturripeko eta Musakolako kiroldegiak zabaldu zituzten. Garbitzaileen grebarekin epe laburrera konponbiderik ikusten ez zenez, AUKEak bi kiroldegiak zabaltzea erabaki du. Igerilekuak eta aldagelak izan ezik, gainerako zerbitzuak emango dituzte: pilotalekuak, kantxak, squasha eta gimnasioak.

Horrekin batera, AUKE-Ak jakinarazi du datorren astelehenean ikastaroak


hasiko direla: besteak beste, gimnasia, aerobica, muskulazioa eta Atzegiko kide direnendako gimnasia.

■ Monterron-Erguin

Udalak ez du Monterron-Erguin oinezkoen zumardiaren proiektua adjudikatu, ez da-eta eskaintzarik aurkeztu. Horren aurrean, udalak negoziazio bidezko prozedura segitu eta kontratuaren prezioa %10 igo du, hortaz, ia 172 milioi pezetan geratu da. Orain, maiatzaren 29a arte dute enpresek euren eskaintzak aurkezteko. Egun horretan zabalduko dituzte plikak udalean.

■ San Pankrazio Arrasaten

Eskola Politeknikoko ikasleek festa handia egin zuten pasa den egunean, San Pankrazio egunean. Bezperan hasi zuten ospakizuna, 24 orduko areto futbol txapelketarekin. Gero, San Pankrazio egunean bertan kronoigoera, 3x3 saskibalo txapelketa, areto futbol txapelketa eta mus txapelketa jokatu zituzten. Hori guztia goizean izan zen. Eguerdian, berriz, triki-poteoarekin hasi eta bazkariarekin jarraitu zuten. Jaia bukatzeko, gau partean Hemendik At eta Guda Garaia taldeek kontzertua eman zuten.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

SOS umeen danborrada



Umeen danborrada galtzeko arriskuan dago herrian. Pasa den astean hasi ziren entsegutan eta behar baino ume gutxiago joan zen. "Ez daki-gu zergatik den, umeek ez

dutelako gura, ez dutelako astirik, edo gurasoek ez dutelako gura, baina, kontuak kontu, oso ume gutxi etorri zaizkigu". Halaxe adierazi digu SUDC elkarteak, danborrada-

ren antolatzaileak. "Eta hori, entsegu egunak ere aldatu eta zapatu goizetan ipini ditugula, ume guztiak joan ahal izateko".

Gaineratutakoaren arabera, "200 bat ume behar ditugu eta lortu ezean umeen danborrada barik geratuko ginateke". Hortaz, herriko ume eta gurasoei dei egiten die SUDCek, umeen danborrada galdu ez dadin.

Interesatuak SUDCen egoitzara joan behar dira izena ematera, astelehenetik egubakoitzera, 18:30etik 20:00ak arte.

Sonografo gehiago herrian

Erdiguneko bizilagunak kexu dira tabernetako zaratek eragiten dituzten enbarazuengatik. Horrekin lotutako salaketa bat baino gehiago jaso du udalak eta, horren aurrean, zenbait tabernatan zarata neurtzeko aparailuak jartzea erabaki du. Jakina, tabernariak ez daude ados erabakiarekin, baina udalaren esanetan, bide bakarra da ikusteko zein tabernak errespetatzen duen ezarritako ordutegia eta gehie-

nezko zarata maila. Izan ere, Ertzaintzak dioenez, lan hori Udaltzaingoarena da, baina jakina, udaltzainek oraingoz ez dute gauzez lanik egiten.

IKUSI ETA KENDU

Udalak pare bat hilabetez lagako du sonografoa ipinita eta gero aparailuak jasotako datuak aztertuko ditu. Tabernak ez badu legea bete, isuna ipiniko diote. Udaletik jakinarazitakoaren arabera, taber-

nen lege-hauste asko ordutegiarekin lotuta egon ohi dira.

Bereziki Erdiguneko tabernak zainduko ditu, halaxe erabaki zuen-eta udalak 2000ko urtarrilean. Izan ere, orduan, udalak egiaztatu zuen Erdiguneko taberna gehienek ez zutela ordutegia betetzen.

Bitxikeria moduan, esan beharra dago herriko fotokopia denda batean laster sonografo bat jartzeko asmoa dutela.

Kontribuzioa ordaintzeko epea

Udalak jakinarazitakoaren arabera, 2001eko Ondasun Higiezinaren gaineko zerga (Hirilur eta Landalur) kobratzen hasi da jadanik. Kobratzeko borondatezko epea 2001eko maiatzaren 15etik ekainaren 30era artekoa izango da.

Helbideratutako ordainagiriak dagokion banketxeko kontura pasatuko dira, ordaintzeko borondatezko epearen ordainagiria helbideratu barik duenak berak esandako zerga



helbidean jasoko dute ordaintzeko behar duten agiria. Ordainketa edozein bankutan edo udalean egin beharko da.

GAINKARGUA

Ekainaren 15erako ez badu agiria etxean jaso, bilketarako udal bulegoetan eskatu beharko du. Ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta gero, ordaindu bariko agiriak %20ko gainkarguaz kobratuko dira.

Gorpu bat Uribarriko urtegian

Astelehen goizean emakume arrasatear baten gorpua aurkitu zuten Uribarri-Ganboako urtegian.

Urtegiako paretaren eta Uribarri Ganboa herriaren artean topatu zuten C.B.H. 41 urteko arrasatearraren gorpua. Goizeko bederatzietan, ingurutik paseoan ari zen pertsona batek ikusi zuen uretan, eta uretik atera zuen.

Ertzaintza emakumea zelan hil zen aztertzen ari da orain, eta lehenengo azterketen arabera istripua izan dela uste dute.

Hain zuzen, emakumea paseoan ari zela, labaindu eta uretara erori zela. Gainera, Ertzaintzak jakin duenez, goizean goiz inguruko bizilagun batek paseoan ikusi zuen emakume arrasatearra.

Gorpuak ez zuen indarkeria arrastorik, hala ere auzitegi-medikuek ez dituzte ikerketa guztiak amaitu.

Geriatria laguntzaile

Hirugarren adineko gaiez arduratzen den ICTE elkarteak Geriatriako Erizain Laguntzaile izeneko ikastaroa eman- goko du. Doan izango da, INE-Mek diruz lagundu du eta. Hortaz, langabezian eta INE-Men izena emana dutenei dago zuzenduta. Prestakuntza praktikoa eskainiko dute ikastaroan, 200 ordu, astean lau egunean. Maiatzaren 21etik uztailaren 23a arte iraungo du eta gizarte eta osasun etxeetan emango dira eskolak. Ikastaroa amaitutakoan titulazio ofiziala lortzeko aukera izango da, baita lan poltsan sartzeko ere.

Baserritarren jaia

Martitzenean, San Isidro eguna izan zen, besteak beste, baserritarren eguna. Musakolako zaindaria ere bada, eta horrexegatik herriko baserritarrek baserriko lanak albora utzi eta dotore-dotore jantzita Musakolan elkartu ziren ospakizunerako. San Isidro elizan esandako meza nagusiarekin hasi zuten eguna; gero, bazkaria egin zuten, eta ondoren, urtero moduan, auzoko zaharrenei opariak banatu zizkieten. Aurten, Matias Sagastak



eta Modesta Gallastegik eskuartu dute saria.

HERRIAREN IZENA

Eta, baserritarren egunaz gain, San Isidrok urteurren polita ere

ekarri zigun: herriari Mondrago izena ipini zioten eguna, hain justu. Espainiako Errege Alfonsito X.a Jakintsuak bataiatu zuen Arrasate Mont-Dragon izenez. 1260an izan zen hori.

Ludoteka berria erdigunerako

Seber Altuben egin beharreko lanengatik, hango ludoteka lekuz aldatuko du udalak. Lehengo Gurea zinema zegoen toki berean egingo dute ludoteka, Okendo kalean hain justu. Ia 300 m² izango ditu, oraingoak baino gehiago. Eta barruan ludoteka bera, 9-12 urte arteko umeendako lantegia, 0-2 urtekoendako gunea, beste bat gurasoendako eta

familia-txokoa ere izango ditu, besteak beste. Halaber, ezinduendako egokituko dute eraikina.

Hori guztia egiteko, udalak 26'5 milioi pezeta onartu ditu, eta Bikani Eraikuntzak enpresari eman dio lana.

UZTAIL ARTE

Txatxilipurdi elkarteak adierazitakoaren arabera, oraindik

Seber Altubeko ludoteka zabalik da eta halaxe segituko du uztail arte, behintzat, udalokuak hasi arte alegia. Ordutegia ohikoa da: egunero 17:00etatik 20:00ak arte eta zapatuetan 17:00etatik 19:00etara. Gero, betiko moduan, abuztuan itxi egingo dute, irail arte.

Batez beste, 170 bazkide ditu Seberreko ludotekak.

Goiena Gasteizen

Goiena Komunikazio Kooperatiba Gasteizko merkatarien aurrean aurkeztu zen atzo. Goienako zuzendari nagusi Mikel Irizarrek eta zuzendari komertzial Gotzon Arzelusek egin zuten aurkezpena.

Izan ere, Gasteizko merkatariak badakite debagoienadar askok Arabako hiriburua

aukeratzen dutela astialdirako eta zenbait erosketa egiteko. Hortaz, Goiena bera izan daiteke, aurrerantzean, jende horrekin harremana izateko bitartekorik egokiena.

Goienak eskualde osaroko aldikari bat, beste sei herri aldikari, eskualde telebista bat eta irrati bat egiten ditu.

Kuotak gora

Urriaren 1etik aurrera Udaltzaren Haur Eskola apurtxo bat garestiagoa izango da. Izan ere, udalak gainerako zerbitzuei aurten ezarritako igoera bera ezarriko dio Umezaintzari: %2'8. Hortaz, 0-1 urteko umeendako kuota 36.000 pezeta izango da; 1-2 urtekoendako 24.700 eta 2-3 urtekoendako 12.350 pezeta.

ELKARTASUN EGUNA (III)

Hiru pausuak (III)

Gaixotasuna, gosea, pobrezia... ez dira gauza politak. Izua eta beste norabait begiratzeko joera sortzen digute. Baina izua gaintu eta begiak zabalik badiugu sufritzen dutenen giza-tasunaz ohartuko gara. Baita munduko sufrimenduen itzeleko tamainaz ere. Une horretan etsipena hurbilduko zaigu. Zer egin hainbeste sufrimenduren aurrean? Eta berriz ere errealtateari bizkarra ematea otuko zaigu. Aurrera jarraitzen badugu ordea, ulertzen saiatzen bagara, batzuen sufrimendu itzel horren jatorria nagusiki beste batzuen jardun eta erabakietan dagoela aurkituko dugu. Eta orduan kezka sortuko zaigu. Nire pribilegioek eta haien sufrimendua txanpon beraren bi aurpegiak ote dira? Hainbeste eta hainbeste emakume eta gizonen sufrimenduari entzungor egin eta gure pribilegiozko munduari eutsi ala mundu hobe baten aldeko lanari heldu? Ez da bide erraza eta asko dira munduko errealtate nagusia den honi bizkarra ematea erabakitzen dutenak. Baina aurrera jarraitzen duenak, giza sufrimendu horretaz eta sufrimendu horren jatorriaz eta sufrimendu hori ezabatzeko ditugun aukerez ohartzten denak, zeregin ezin ederragoa izango du bere aurrean.

Harreman

Oharra:

Forum Sport S.A-k, maiatzak 11ean argitaratutako Lan postu eskaintzako iragarkian, curriculum Vitaea bidaltzeko azaltzen den 186 posta kutxa, Basauri (Bizkaia) posta kutxari dagokio.

Ongizate sentsazioa.



Ehun nobledun altzariak, kolore lasaigarriekin, sentipenek laztantzen dituzten formez beteta.

Barne-barneko ongizatea. Hau guztia TODOMUEBLE Kabiak eskainitako aholkularitzaren eta bertako profesionalen arretari esker eta, jakina, TODOMUEBLE Kabiak finantzazioan eskaintzen duen formula bikoitzarengatik: Sei hilabetetan, eskura ordaintzeak dakarren deskontuarekin. 24 hilabetetan, interes barik eta 6. hilabetetik aurrera ordaintzen hasita. Gehien komeni zaizun sistema!



ZERBITZUA
KALITATEA
MEJOR
PREZIOA



TODOMUEBLE Kabiá
DARIA OIA

Ordutegia: 10:15etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.
Zapatuak barne

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 792 770 • ARRASATE

EAJ/EA koalizioa garaile garbia Arrasaten

Ezuste barikoa izan zen hauteskunde domeka Mondragoen. Herritarrak etengabe joan ziren botoa ematera, zenbait hautes-mahaitan ilarak sortuz, bereziki, eguerdi eta iluntze aldean. Hortaz, herritarren partaidetza bestetan baino handiagoa izan da. 98. urteko hauteskundeekin alderatuz gero, 10.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute oraingoetan.

Eta, bailarako gainerako herrietan moduan, Mondra-

goen ere EAJ/EA koalizioa izan da garaile nagusia. Botoen %42'68 eskuratu du. Bigarren indarra EH izan da, botoen %17'96rekin. Alderdi Sozialistari dagokio hirugarren lekua, botoen %16'84rekin. Alderdi Popularra dator segidan, botoen %14'63rekin. Eta Ezker Batua ondoren, botoen %7'47rekin. Horrez gain, Alderdi Humanistak 43 boto jaso ditu, Alderdi Karlistak 11 eta Askatasuna izenekoak 10.



Hauteskunderi buruzko iritzia:

Rafa Gomez

Al-Andaluseko presidentea

“Dirudienez, egoera oso gutxi aldatu da. Argi geratu da EHren boto asko EAJ-ra joan direla. Bestela, egoera lehengoaren antzerakoa da. Eta, jakina, Al-Andaluzen ez du eraginik”.

Jose Luis Ezkurra

Mondra futbol taldea

“Gauza bat argi ikusi da: euskaldunok betiko moduan elkarrekin bizi gura dugula, bakebakean (...). Euskaldunok elkarrekin badakigu nahikoa garelako gobernatzeko eta gauzak aurrera ateratzeko. Eta Mondra ere, berdin: aurrera”.

Jose Ramon Elortza
Elkarri

“Aipatu beharreko hiru puntu badira: 1) abertzaletasunaren garaipena; 2) Mayor Oreja eta Redondoren apustuaren eta estrategiaren porrota; eta 3) ezker abertzaleak estrategia horren barruan ordaindu behar izan duena (...). Subiranotasunaren bidean, batasun puntua lortu behar du EAJ/EA koalizioak ezker abertzalearekin”.

Xabier Zubizarreta
Alkatea

Kanpainan esan dugu siglen gainetik Euskal Herriak irabazi behar duela. Orain, gure siglei egokitu zaie galtzea eta nahia go genuke galera hori Euskal Herriaren interesen alde bada. Edozelan ere, uste dut EAJ/EAK inoiz baino erantzukizun handiagoa duela, eta herriaren eskaerari erantzuten jakin behar diola. Eta bide horretan baldin bada, guk eskua luzatuko diogu kolaboratzeko”.

	Erdialdea		Santa Marina		Musakola		S. Andres		Uribarri		Auzoak		Guztira	
	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%
Hautesleak	5.966	100	2.476	100	2.140	100	3.220	100	5.080	100	1.046	100	19.928	100
Abstentzioa	972	16,2	631	25,4	431	20,1	691	21,4	959	18,8	606	57,9	4.290	21,5
EH	1.013	20,4	194	10,6	340	20	395	15,7	741	18,1	104	23,6	2.787	17,9
EAJ/EA	2.680	54	403	22	767	45,3	903	36	1.620	39,5	248	56,4	6.621	42,6
PSE-EE	421	8,4	625	34,2	229	13,5	558	22,2	770	18,8	10	2,2	2.613	16,8
IU-EB	286	5,7	199	10,9	145	8,5	184	7,3	325	7,9	20	4,5	1.159	7,4
PP	552	11,1	390	21,3	205	12,1	446	17,8	623	15,2	54	12,3	2.270	14,6


WWW.EMAKUMEAK-SAREAN.COM

Hona hemen Arrasaten eman den lehenengo internet ikastaroan parte hartu duten emakume mondragoetarrak. Denbora hori ondo baino hobeto aprobetxatu dute. Ikastaroa Foru Aldundiak eta Emakundek bideratu dute.



JAIETARA, BAITA MOTOZ ERE!

Inortok ez du hutsik egin gura izan Musakolako jaietan. Autoz, oinez zein motoz hurbildu zen jendea auzoraino. Arrasateko motozaleek deitutako kontzentrazioa egin zen Arruena zelaian, eta baietz bat baino gehiago gero jaietz gozatzerara geratu!



**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**BITTORI
ERRETEGIA**

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

EMAKUMEEN AUKERA BERDINTASUN AGENTEA

Amatasun bajaran dagoen bitartean titularrak ordezkatzeko, aldi baterako lan-kontratua eskaintzen da.
Ordezkapena lau hilabete ingurukoa aurreikusten da.

Aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:
Euskara: 3. Heren pareko jakintza.
Unibertsitateko erdi mailako titulua.

Interesatuak Arrasateko udaletxera etorri behar dira maiatzaren 30ean, goizeko 10etan euskara proba eta praktikoa egiteko.
Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri-arauak Arrasateko udaleko Pertsonal sailean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■



JON ARRETXEREKIN BERBETAN

Eguenetik barikura salto eginez, bizitzaren zazpi kolore jarri zizkigun begi aurrean. Umore onez kontatu zizkigun Jon Arretxe basauriarrak kontakizun haiek, eta umore horrekin berberarekin egin zuen berba Arrasate Irratian.


ZORIONAK, ARRASATE IRRATIA!

Maiatzaren 8an, Arrasate Irratia egoitza berritik emititzen hasi zeneko urteurrena bete zen, eta emanaldi berezia egin zuten. Musika izan zen protagonista: Tehenengo, Erguin herri eskolako umeek "Zorionak" kantatu zioten; gero, Eguzki eta Anger taldeen berri jaso genuen; eta azkenik, Kaiet eta Kir Rin disko jartzaileek dantzan ipini gintuzten. Zorionak, gure partetik ere, Arrasate Irratiari!



IKASLEAK SALAMANCARA

Arizmendiko San Viator ikastolako 1. Batxilergoko ikasleak dituzue hauek, hilaren 4tik 6ra Salamanca egin zuten ikasbidaian. Baina argazkia ez dago hiriburuan aterata, Ciudad Rodrigon baizik. 65 ikasle joan ziren, eta nahiko formal ibili ei ziren.



HOCKEY ZELAI BERRIA?

Arizmendi ikastolak Ikastolaren Eguna ospatu zuen joan den zapatuan. Ferixalekuan izan zen jaialdia. Puzgarriak eta jaki goxoak izan ziren, baina baita kirol-jolasak ere, kale erdi-erdian. Hau ote da Arrasateko hockey zelai berria?



61EKO KINTOAK

1940an jaiotakoek, 61eko kintoek, joan den maiatzaren 5ean egin zuten aurtengo batzarra. San Frantziskon meza entzun ondoren, Amaiak Gazte elkartean bazkari ederra egin zuten. Baina, hobe oraindik bazkalostea, umoretsu asko ibili ziren-eta kontu kontari.



- Automatismoak
- Garajeko atearak
- Burdinazko pertsianak
- Urrutiko aginte tresna HOMOLOGATUAK
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak



Tel.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17
Kataide industrialdea 18. 110 Postakutxa • ARRASATE

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

JON BASURKO (KENCI ARRASATE TALDEKO PRESIDENTEA)

«Gaur egun, oso zaila d

Hogeita hamaika urteko ingeniaria, Jonek eta bere inguru-koek saskibaloian jokatzeko segitu ahal izateko erabaki zuen Arrasate saskibaloia taldeko presidentea izatea, baina bere ustez, kargu sinbolikoa da, azken batean, taldekide guztien ardura baita taldea aurrera ateratzea. Esan digunez, adinarekin gauzak lasaiago hartzen dira eta hori behar du, gainera, presidente batek, lasaitasuna alegia.

– **Presidente eta jokalaria, ez da egunero ikusten.**

– Ez, eta ez da batere erraza biak ondo egitea. Askotan, jokalaria moduan pentsatzen duzu, hau da, zugan, baina gero presidentea zarela konturatu zara, eta zeure burua alde batera utzi eta besteengan pentsatzen duzu. Gaur egun, gauzak lasaiago hartzen ditut, lehen, entrenatzaileak ez baninduen ateratzen haserretu egiten nintzen. Orain, nik jokatzeko baino, nahiago dut gazte batek jokatzeko.

– **Eta kantxaratzaren zere-
nean epaileekin lasai ibili
behar...**

– Bai, horrela behar luke, baina sarritan neu izaten naiz txarrena. Hala ere, garai batean baino lasaiago ibiltzen naiz, bueno, saiatu, behintzat, saiatzen naiz.

– **Lehen mailara igo zineten
iaz, aurten egin-
dako lanarekin
pozik?**

– Nire ustez, lehenengo helburua bete dugu, hau da, mailari eustea. Hala ere, denboraldia amaituta uste dugu gauzak hobeto egin gitezakeela, baina lesioekin izan ditugun arazoekin gauzak askoz hobeto egitea oso zaila zen.

– **Behin baino gehiagotan**

**idatzi dugu Kenci Arrasate
zazpi jokalarirekin joan dela
partiduak jokatzera.**

– Bai, liga hamar jokalarirekin hasi genuen, baina gero lan kontuengatik eta beste hainbat konturengatik arazoren bat edo beste izan dugu. Hala ere, arazoa ez da jokalaria gutxirekin jokatzeko. Buruhauste handiagoa da kale egiten dutenak postu berean jokatzeko duten jokalaririk izaten direnean.

– **Datorren urterako alda-
ketak izango dira?**

– Bai, hasteko, Lander Errasti ez da Arrasate Saskibaloia taldeko entrenatzaile izango, eta Danel Ayastuik ere aguresango digu, izan ere, urte asko dira saskibaloian jokatzeko. Hortaz, Kenci Arrasatek une honetan lehentasun bat dauka, entrenatzaile egokiaren bila hastea hain zuzen ere.

– **Zenbat taldek osatzen
dute Kenci Arrasate?**

– Kenci Arrasate bost taldek osatzen dute. Nagusien gainean berba egin dugu, baina lau talde gehiago ditugu: nesken talde bat eta beste hiru mutilenak. Harrobia, hortaz, badago, baina seniorretatik askotan ez dute gura izaten lehen taldera igotzea, azken batean, beheko taldean minutu gehiago jokatzeko dituzte eta. Hala ere, lehenago edo geroago, gazte horiek ordezkoa hartu beharko dute.

– **Presidente moduan bizi
izandako unerik goxoena?**

– Astebururo jendea sas-

«a jendea erakartzea»

kibaloian jokatzeko ikusten dugunean, gure helburua betetzat ematen dugu.

- Eta tristeena?

- Eugenio Aialaren heriotza.

- Euroligako finalean zertan egin zuen kale Baskoniak?

- Azkenengo partidua benetan txarra izan zen, bi taldeek defentsa gogorraren alde apustu egin zuten, eta ez genuen joko onik ikusi. Alderantziz, bi taldeak defendatzeaz baino erasotzeaz arduratzen direnean, orduan izaten dira benetako partiduko politikak. Epailea ere ez zen oso fin aritu, oso erabaki zorrotzak hartu zituen, eta erabaki horiek Tau Baskoniaren kalterako izan ziren. Hala ere, Kinder ez zait talde ona iruditu.

- Euskal Herriko egoera

politikoa play-offetako azken partiduan dago? (Hauteskunde aurretik eginiko galdera)

- Bizitzak aurrera egiten du beti, eta norberaren bizitza edozein egoera politiko baino garrantzitsuagoa da. Une askotan gauzak oso ilun ikusten ditugu, baina azken batean, gurpil baten inguruan biraka dihardugu, eta aldaketak bada-toz, zelabait moldatu eta jakin-godu aurrera egiten.

- Saskibaloia alde batera utzita, nongo presidente izango zinateke gustura?

- Hemen ordu asko igarotzen ditugu taldea aurrera atera guran, eta poztasun bakarra norberari gustatzen zaion zerbait besteek ere goza dezaten ahalbidetzea da. Beste nonbaiteko presidente izateko, zaletasun handia beharko nuke, eta nire zaletasun handiena sas-

kibaloia da, hortaz... Hala ere, gustuko lana bada, erraz egiten da, eta nik, gainera, ez dakit ezetz esaten.

- Oraingo zapaturako 3X3 txapelketa antolatu duzue..

- Bai, gaur egun oso zaila da jendea erakartzea, eta gure helburua da, nolabait, saskibaloia kalera ateratzea. Txapelketa Lau Bide izango da, Tau Baskoniak saski

bereziak utzi dizkigu, eta jendea, musika eta beste hainbat kontu izango dira, nahiz eta txapelketa, neurri handian, gazteendako izan.

- Zerbait gehitzerik nahi?

- Bai, eskerrak eman nahi dizkiet astebururo Kenci Arrasateko taldeak animatzera joaten direnei, babesle guztiei, eta jakina, taldea utziko dutenei ere.

«Presidente izateko zaletasuna behar da, eta gainera nik ez dakit ezetz esaten»

**LIKIDAZIO
OSOA**

ARRASATE



KIROLAK

**ANORAKAK BALOIAK
BERMUDAK BISERAK
BOTAK ESKULARRUAK
PRAKAMOTZAK JAKAK
JERTSEAK KAMISETAK
MOTXILAK PARKAK
POLARRAK POLOAK
PRAKAK LOZAKUAK
SUDADERAK TXAMARRAK
TXANDALAK ZAPATILAK**

Kontzeziño, 8 · Tel. 943 793 838 · ARRASATE

Datorren urtean ohorezko mailan



Arrasateko gazte mailako mutilek ohorezko mailarako txartela lortu zuten zapatuan. Ilintxari hiru eta bat irabazita. Josu Zubiaren mutilek sekulako denboraldia egin dute aurten, eta amaitzeko oraindik hiru partidu geratzen badira ere, etxeko taldeak hamabi puntuko alde dauka, eta matematikoki lortu du bere helburua. Zuri-moreiek berdinketarekin nahikoa zuten, baina urte osoko jarrera berarekin, hau da, partiduak irabazteko asmo sendoarekin, Ilin-

txari ere irabazi egin zioten. Etxekoek talde ona izan zuten aurrean, eta partidua benetan ikusgarria izan zen. Norgehiagoka hasi eta hamabost minutura legazpiarrak aurre hartu zuten, baina hogeita hamargarren minutuan Asier Gonzalezek berdinketa lortu zuen. Bigarren zatian partidua erabat aldatu zen. Zazpigarren minuturako, Aritz Kortabariak bi eta batekoa egin zuen, eta hortik aurrera Ilintxak partiduari buelta emateko ahalegin guztiak

egin zituen. Partidua amaitzeko minutu gutxi falta zirela etorri zen arrasatearren azkena. Ilintxaren aldeko korer batean talde osoa errematatzerara igo zen, eta Iker Lopezek egoera hori ederki aprobetxatu zuen kontraeraso batean hiru eta batekoa lortzeko. Goiko mailarako txartela lortuta, gazte mailako txapeldun izatea geratzen zaie, eta horretarako beste multzoko lehenaren aurka neurtu beharoko dituzte indarrak, Martuteren aurka alegia.

3x3 txapelketa



Arrasate Saskibaloitza taldeak eta Arrasate Kirol Proiektuak 3x3 saskibaloitza txapelketa antolatu dute oraingo zapatarako. Txapelketa goizeko hamarretan hasiko da, ordu bata arte, eta bazkaltzeko atsedean hartu eta gero, bostetan arratsaldeko saioa hasiko da, zortziak arte. Txapelketa gazteendako bada ere, saskibaloia kalera atera eta jendea erakartzea da helburua, eta horretarako Tau Baskoniak kalean jartzeko saski berezi batzuk utzi dizkie. Hortaz, zapatuan, Lau bide plazan, kirola, musika eta giro aparta.

Gipuzkoako Txapelketa

Aurreko zapatuan, Gipuzkoako alebin txapelketa jokatu zen Elgoibarren, eta Arrasateko taldea pozik egoteko moduan dago han lortutakoarekin. Herriko atletek 30 metro hesietan, luzera jauzian, bi mila metroetan, pelotajaurtiketan eta 4x60 errelebutan esku hartu zuten, eta guztira urrezko domina bat, zilarrezko bost eta brontzezko bi dominarekin bueltatu ziren etxera. Urrea Iñaki Etxagibelet lortu zuen 30 metro hesietan, 10"83ko denborarekin. Jonander Amado hirugarren izan zen (10"97), eta horrez gain, luzera jauzian zilarra lortu zuen. Markel Blancok brontzezko domina lortu zuen 2.000 metroetako lasterketan, eta beste bi zilarrezko 4x60 errelebutan lortu zituzten.

Oraingo asteburuan, Gipuzkoako taldekako txapelketa jokatu da Anoetan, eta Arrasate Kirolak talde arrasatearrak ez du kalerik egingo.

Punteria doitzuz

Gure artean ezagun ez den kirol bat gertutik ikusteko aukera izan genuen Musakolan, arku-tiroa hain zuzen ere. Musakolako jaien barne, Arrasateko Arkulari Taldeak II. arku-tiro txapelketa antolatu zuen zapatuan. Distantzia ertaineko txapelketa izan zen, hau da, arkulariek 20, 30 eta 40 metrotik jaurti behar izan zituzten geziak. Guztira, 28 parte hartzaile izan ziren, Zornotza, Durango, Eibar, Barakaldo, Oñatikoak eta Arrasatekoak bertakoak. Txapelketa taldeka antolatu zen, eta arkularien artean adin guztie-



tako kirolariak ikusi ahal izan genituen. Migel Galban Arrasateko Arkulari Taldeko entrenatzaileak aipatu digunez, arku-tiroa prestakuntza fisiko


berezirik eskatzen ez duen kirola bada ere, behar-beharrezkoak dira erritmoa, kontzentrazioa eta pulsu ona izatea.

Besaideren Mendi Astea

Aurten ere, Besaide Mendizale elkarteak, beste hainbat ekintzaren artean, Mendi Astea antolatu du, maiatzaren 21 eta 27a bitartean. Aste horretan, mendiarekin harreman zuzena daukaten gaiak beste era batean landuko dituzte, eta hainbat adituk esperientzia, abentura eta paraje ezberdinen berri emango dute.

Astelehenean, maiatzak 21, hitzaldia egingo du Nekane Intxaustik: Secretos de los glaciares de Chamonix. Martitzenean, Eneko Pouk Eski estretoa pirinioetan gaiaz mintzatuko da. Eguaztenean, Carlos Vieira eta Mikel Saez Himalayaren inguruan berbetan izango ditugu, eta eguean, argazki erakusketa izango da Josu Granjaren eskutik; erakusketaren gaia *Paisajes*

subterraneos. La montaña oculta izango da. Azkenik, egubakoitzean, Alberto Friasek hitzaldia egingo du, Las dos caras de la montaña izenburuarekin. Ekintza horiek guztiak arratsaldeko zazpitan izango dira Monterron Jauregian. Besaide mendizale elkarteak astebururako ere hainbat ekintza antolatu ditu. Zapatuan, maiatzak 26, mendi bizikleta irteera izango da. Ibilbidea: Arrasate, Gesalibar, Kobate, Teilamendi, Etxaguen, Kurtzeta, Untzilla eta Arrasate. Eta azkenik, Mendi Astea bukatzeko, domekan, mendi ibilaldia izango da. Goizeko zazpi eta erdietan irtengo dute, Arantzazu, Elgeako zerra eta Dorletatik itzulia egiteko. Gogora ezazue izena emateko egunak maia-



tzaren 22 eta 23a direla, 19:30etik 20:30era, Besaideren egoitzan.

X. San Isidro txapelketa



Urtero moduan, Zigorrolako jaiak aprobetxatuz, X. San Isidro xake txapelketa jokatu zen asteburuan. Denera bederatzi talde aritu ziren, eta talde bakoitza lau jokalarik osatu zuten. Partida lasterrak izan ziren, gehienez bost minutukoak, bi itzulitara, eta guztira hiru orduan 264 partida jokatu zituzten. Aurtengo irabazlea Fomento Renteria taldea izan da, 50 punturekin, eta Debagoieneko taldea bosgarren geratu da 40 punturekin, Ermua, Gross eta Eibarren atzetik. Arrasatek zazpigarren postua lortu du, hamalau punturekin, eta Musakola zortzigarren izan da hamairu puntu eta erdirerkin.

Trial erakustaldia

Musakolako jaiak borobiltzeko, Arrasateko Motozale Elkarteak trialsin erakustaldia antolatu zuen zapatu arratsaldean. Iker Lezeta munduko txapelduna eta Alberto Gomez Europako txapeldu-

nak bizikletan egin daitekeena erakutsi ziguten. Giro bikaina izan zen, eta bero eginen bazuen ere, jende asko hurbildu zen ikuskizunaz gozatzera. GOITBko kamerak ere hantxe izan ziren.



Musakolako pilota partiduak



Urtero legez, San Isidro jaietako pilota partiduak jokatu ziren aurreko asteburuan, eta sekulako ikusmina sortu zuten. Aipagarriena, zapatu goizean Zigorrolako pilotalekuan izan zen giro ona, eta aipagarria baita ere hantxe ikusi ahal izan zen pilota ikuskizuna. Eskuz banakako partiduan, Juan Garcia eta Langaran "Txikito de Beneras" izan ziren aurrez aurre, eta Txikitok irabazi

zuen (22-14). Eskuz binakako partiduan, J. Luis Beitia "Txikito de Ziorla"-k eta J. Vitoria "Alaves Oriundo de Musakola"-k Jose Angel Agirre "Kurasao" eta Txispas izan zituzten aurrez aurre. Azken bikote horrek zortzi tanto besterik ez zuen egin, izan ere, "Txikito de Ziorla"-k eta "Alaves Oriundo de Musakola"-k joko ona eta sasoi ederra erakutsi zuten.

Koadrila arteko I. pelota txapelketa

Taldeak

A taldea

Toribio - Pi
Eimon - Zarre
Iñigo - Isturiz
Muxi - Ulli
Saizar - Pon
Haritz - Urko
Joseba - Josu
Bolingazo - Karni

B taldea

Otuto - Aranburu
Gaizka - Boludo
Piru - Mutxin
Markel - Unai
Bolingazo II - Bex
Gaizka - Ugutz

C taldea

Bermu - Biu
Txelo - Xabi
Asier - Urtzi
Lur - Lagar
Bull - Pirulo
Aitor - Oier

D taldea

Txetxi - Skritx
Gorka - Haimar
Carlos - Unai
Kasko - Iraultza
Gari - Igortz
Carboni - Titino

Hurrengo partiduak/1. jardunaldia

Maiatzak 19, zapatua

Uarkape pilotalekuan

E taldea

			Ordua
Txetxi - Skritx	vs	Gari - Igortz	10:00
Gorka - Haimar	vs	Kasko - Iraultza	10:30
Carboni - Titino	vs	Carlos - Unai	11:00

A taldea

Toribio - Pi	vs	Joseba - Josu	11:30
Eimon - Zarre	vs	Haritz - Urko	12:00
Iñigo - Usturiz	vs	Saizar - Pon	12:30
Muxi - Ulli	vs	Bolingazo I - Karni	13:00

B taldea

Otuto - Aranburu	vs	Gaizka - Ugutz	15:00
Gaizka - Boludo	vs	Piru - Mutxin	15:30
Markel - Unai	vs	Bolingazo II - Bex	16:00

C taldea

Bermu - Biu	vs	Aitor - Oier	16:30
Txelo - Xabi	vs	Asier - Urtzi	17:00
Lur - Lagar	vs	Bull - Pirulo	17:30

E taldea

Txetxi - Skritx	vs	Carboni - Titino	18:00
Gorka - Haimar	vs	Carlos - Unai	18:30
Kasko - Iraultza	vs	Gari - Igortz	19:00

Maiatzak 20, domeka

C taldea

Bermu - Biu	vs	Bull - Pirulo	10:00
Txelo - Xabi	vs	Lur - Lagar	10:30
Aitor - Oier	vs	Asier - Urtzi	11:00


B taldea

Otuto - Aranburu	vs	Bolingazo II - Bex	11:30
Gaizka - Boludo	vs	Markel - Unai	12:00
Piru - Mutxin	vs	Gaizka - Ugutz	12:30

Hasi da txapelketa!

Arrasateko koadrila arteko lehen pilota txapelketa hasiko da oraingo asteburuan, hortaz, pilota eta giro ona atsegin badi-tuzue, Uarkapeko pilotalekura hurbiltzea besterik ez duzue. Seguruenik, asko izango dira entrenamendu falta dutenak, baina pilota partidu ikusgarriak ere izango dira. Koadrila arteko txapelketan hainbat arau bete beharko dira, eta ez dituenak betetzen pilotan egiteko aukera galduko du. Partiduetara joatea beharrezkoa da, eta hitzartutako egunean jokatzetik ez badago, beste bikotearekin adostu beharko da partidurako hitzordu berria. Txapelketaren lehen aldia ligaxka eran jokatu da, eta lehen aldi hori ekainaren 11 rako bukatuta egon beharko da. Horrela ez bada, jokatu bariko partiduen bikoteak txapelketatik kanporatuak izango dira. Antolatzaileek ez dute onartuko pertsona batek biren aurka jokatea, eta lehen aldia amaitzean bi bikotek puntu berberak badiuzte, bien arteko partiduan izandako emaitza hartuko da kontuan. Talde gehiago berdinuta geratuko balira, guztien arteko tantoei erreparatuko liekete. Zorte on guztioi, eta hasi posturak egiten!

EGUN GUTXITARAKO
AUKERA



Sartu 400.000 pta.,
eta opari hau zerbitzatuko dizugu.



Maiatzaren 7tik 25era bitarte,
altzairu heldoiligaitzezko 4 erretilu
sorta bikaina eskura dezakezu.

Zatoz Arrasateko zeure bulegora eta gehi
ezazu 400.000 pta.tan zeure kontuan
edo libretan Maiatzaren 6an zenuen saldoa,
diru-kopuru hori, gainera, **noiznahi guztiz**
erabilgarri geldituko zaizularik.

**ARRASATEKO BULEGOETAN
BAKAR-BAKARRIK.**



Bakarrik eskudiruzko edota beste erakunderen bateko txeke bidezko
sarrerak onartuko dira.

Maiatzaren 7tik 25era bitarte edota izakinak agortu arte.

Udalekuak, jolas bat baino gehiago.



Adi!! ekainaren 15a baino beranduago ez da matrikularik onartuko.

udara gaztea

Gu bai
ni be bai!

irekiak
01

TXATXILIPURDI
gehiago bota!
zeu be bai ezta?

BABYLEKUAK

al
eskola bukatu da

el
porrak nahi nituzke.

il
z nabil horren gaizki.

ol
olas egin jan da lo.

ul
horrelaxe jarraitu.

BILIZ
BOLKA
0 1

Parkina
01

TXATXILIPURDI
gehiago bota!

Emaitzak

Iriztu 6 - Rayo Aldeano 4
 Komando Alpargat 4 - AC Surcos 6
 Aurrera Bolie 4 - Kamasutra 5
 YK Azkena 1 - Irati STS 3
 Txap. Driblin 6 - Pepelus.com 4
 Bik. akademia 6 - Usotz Potroak 4
 At Celaya 0 - Etxerat 7
 Goma2 3 - IKP 7



Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	1	1	0	0	6	4	2
AC Surcos	1	1	0	0	6	4	2
Kom Alpargat	1	0	0	1	4	6	0
Rayo Aldeano	1	0	0	1	4	6	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Kamasutra	1	1	0	0	5	4	2
Irati STS	1	1	0	0	3	1	2
Aurrera Bolie	1	0	0	1	4	5	0
YK Azkena	1	0	0	1	1	3	0

C taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txap. Dribling	1	1	0	0	6	4	2
Bik Akademia	1	1	0	0	6	4	2
Usotz Potroak1	0	0	1	4	6	6	0
Pepelus.com	1	0	0	1	4	6	0

D taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Etxerat	1	1	0	0	7	0	2
IKP	1	1	0	0	7	3	2
Goma2	1	0	0	1	3	7	0
AT Celaya	1	0	0	1	0	7	0

BERDINTASUNA NAGUSI

Bigarren aldiko lehenengo partiduez gozatzeko aukera izan genuen aurreko asteburuan, eta protagonista nagusia eguraldi beroa izan bazen ere, partidu interesgarriak ikusi ahal izan genituen. Epaileak ere, jeneralean, fin aritu ziren, nahiz eta baten batek zer esana izango duen. Hala ere, kontuan izan lehen mailako epaileek sekulako hankasartzeak egiten dituztela, areto futboleko partiduetan hiru epaile izaten direla, eta gurean, hau da, Zaldibarren, pertsona bakar batek duela partidua epaitzeko ardura. Partiduak jokatze

ko orduan hori kontuan izatea lagungarria izan daiteke, eta partiduetara negar egitera joaten dena, epaileak ez dituztela falta guztiak adieraziko, gera dadila itzalpean. Bigarren aldiko lehen jardunaldian taldeen arteko parekotasuna izan zen nagusi. Zortzi partiduetatik, lau emaitza berberaz amaitu ziren: 6-4 edo 4-6. Horrez gain, YK Azkena, Irati STS, Goma2 eta IKP taldeek jokatuak partiduetan gutxiako aldea izan zen.

PARTIDU INTERESGARRIAK

Oraingo honetan ez da batere erraza partidu interesgarriak zeintzuk diren eraba-

kitzea. Argi izan gehienak partidu ikusgarriak izango direla, baina agian interesgarrienak jadanik bi puntu dituzten taldeen arteko partiduak izango dira. Alde horretatik, zapatu arratsalde gomendatzen dizuegu. Arratsaldeko bostetan Irati STS eta Kamasutra taldeek B multzoko lidertza izango dute jokoan, eta seietan D multzoko behin-behineko burua nor den erabakiko da Etxerat eta IKPren artean. Goiz jaikitza ohituta daudenei Bikain akademia eta Txapime Dribling taldeen partidua gomendatzen diegu, zapatuan, 10:00etan.

Hurrengo partidak / 2. aldiko 2. jardunaldia

Maiatzak 19, zapatua

Zaldibar

9:50 Bikain Akademia - Txap Dribling
 11:00 YK Azkena - Aurrera Bolie
 12:00 Kom. Alpargat - Iriztu
 13:00 AT Celaya - Goma2

16:50 Irati STS - Kamasutra

18:00 Etxerat - IKP

Epailea

Antolakuntza
 Antolakuntza
 Antolakuntza
 Antolakuntza

Antolakuntza

Antolakuntza

Maiatzak 20, domeka

Zaldibar

11:50 AC Surcos - Rayo Aldeano
 13:00 Usotz Potroak - Pepelus.com

Epailea

Antolakuntza
 Antolakuntza

Lanbide Heziketa eta euskara

Euskaraz ziklorik ziklo, eta lanbide heziketan be, noizko? Lelo horrek ondo adierazten du zein den udaleko Hezkuntza Sailak, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak eta Txatxilipurdik antolatu duten kanpainaren helburua, alegia, Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza ahalbidetzea. Gabezia horren gaineko sentsibilizazio kanpaina ekainaren 1etik 12ra egingo da. Martitzenean egin zen beronen aurkezpena.



de Heziketan euskararen egoera jakiteko. "Batxilergoan euskarazko matrikulazioa haziz doan bitartean, heziketa zikloetan euskarazko eskain-

tza oso urria dela konturatu ginen", dio Juanito Barberanek, udaleko Hezkuntza Saileko arduradunak.

ZUZENDARI ETA IKASLE

Kanpainak bi ardatz izango ditu: bata ikastetxei zuzenduta eta bestea ikasleei. Ikastetxeetako zuzendariei, egingdako hausnarketan ondorioak jakinaraziko dizkiete gutun bidez, eta datorren ikasturterako plangintzaren berri eskatuko diete. Matrikulatzeko zorian dauden gazteei ere gutuna bidaliko diete, D ereduaren abantailak eta matrikulazio aukerak jakin ditzaten.

ESKAINITZA URRIA

Udalak, AEDk eta Txatxilipurdik hainbat batzar egin dituzte ikastetxeekin, Lanbi-

Al-Andalusek meza abestuko du San Juan de Diosen



Ekintza berri asko eskaintzen du Al-Andalus elkartearen XII. Kultura Asteak. Asteburuan hasiko da, eta inaugurazio moduan, joan den egubakoitzean, Andaluziako Las Ramblaseko zeramika erakusketa zabaldu zuten.

Edozelan ere, berritasun gehienak datorren astean gozatu ahal izango dira.

SAN JUAN DE DIOSEN

Al-Andaluseko lehendakariak, Rafa Gomezek, abesbatza errozieroak egin behar duen eman-kizun berezia nabarmendu du: San Juan de Dios ospitalean daudenendako, meza abestuko dute domekan, hilak 20. Gero, elkarteko taldeen emanaldia izango dute ospitalekoek.

Musika izango da kultura asteko protagonistetako bat. Eta musika izango da datorren hilaren 26an, zapatua, baina aldaketa batekin: lehen dantzaldia izaten zen, eta orain, horren ordez, Bartzelonako abeslari bat etorriko da, Espainiako koplarekin giroa berotzera.

EZKONDUAK ETA EZKONGABEAK

Musika baino kirola gurago dutenek ezkonduen eta ezkongabeen arteko areto futbolari izango dute. Al-Andalusek Erguinen egoitza zuenean egiten zuen txapelketa hori -leku aproposa zuten-, baina Zigorrolara etorri zirenean, bertan behera utzi zuten.

Ekintza lasaiagoen tartean, Andaluziaren inguruko bideo emanaldiak izango dira, datorren astean estreinatuko den zinema-pantaila berrian.

Informatika, guztiondako eta doan

Etxean ordenagailurik ez duzula eta lanen bat egin behar duzula, edo interneten informazioa bilatu? Baduzu testu-prozesadoreak, datu baseak, kalkulu orriak, diseinu programak, eskannerra... doan eskaintzen dituen leku bat: Monterrongo informatika gela. Bazenekien zerbitzu horiek eta gehiago daudela aukeran han?

EZAGUTZA FALTA

Arrasatear askok, behintzat, ez. Baina, ez pentsa informatika gela betetzen ez denik. Kontua da zeintzuk diren erabiltzaileak: "Internet emakumei ezagutarazteko egitasmoa bete genuen. Horren harira, erabiltzaile gehienak 20-40 urte bitarteko gizonak zirela konturatu ginen", dio Olatz Gandariasek, gelako arduradunak. "Tamalez, jende askok ez daki zerbitzu hori dagoenik ere. Esaterako, urtaririlean, zapatuetan ere zabalitzen hasi ginen, eta gutxiak dakite hori".

40TIK GORAKOEI

Hori konpontzeko hasi dute informazio kanpaina kultura etxeko arduradunek. Lehenengo, emakumei informazioa bidali zieten etxera, "eta sumatu genuen, bai, gehiago etortzen hasi zirela", dio Olatzek. Gainera, informatika gelaren inguruko iritzia jakiteko galdera orriak banatzen dihardute. Batik bat, emakumeendako, eta halaber 40 urtetik gorakoendako, da kanpaina.

Erabilpen baldintzen inguruko argibide gehiago gura baduzue, deitu 943 77 01 05 telefonora.

ESTHER APAOLAZA (EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN)

«Iparraldera sarriago joan beharko ginateke, eta hartu-emanan sendotu»

Esther Apaolaza arrasatearrak 30 urte ditu eta Euskal Filologian lizentziaduna da. Euskara du ama-hizkuntza, eta horretan sakondu du bere ikasketei esker. Orain dela bi urte, HABEK urtero antolatzen dituen "Egonaldiak familia euskaldunetan" programan parte hartu zuen Estherrek. Programa hori euskara ikasten ari direnei zuzenduta dago, batik bat, baina Estherren esperientziaren arabera, euskaldun zaharrendako ere egokia izan daiteke.

— Zer dela eta erabaki zenuen programa horretan parte hartzea?

— Euskal Filologiaren barne, dialektologia biziki gustuko nuen. Liburuetatik asko ikasi nuen, baina errealtatearekin harremana sumatzen nuen faltan. Zuberua oso erakargarri egiten zitzaidan: alde batek, hango euskalkia gustuko nuen, eta beste, lurraldea bera ere ezagutzeko gogoia nuen. Hala, Atharratzera joan nintzen.

— Zer-nolako esperientzia izan zen?

— Oso-oso pozik ibili nintzen. Orduan egin nituen adiskideekin hartu-emanan dut oraindik ere. Familia zoragarri batekin izan nintzen baserri batean: Batixta, aita; Maite, ama, eta Beñat eta Patxi, semeak. Hasieran kosta egin zitzaidan ulertzea, eta sekulako laguntza eman zidaten.

— Iparraldean, oro har, zelan ikusi zenuen euskara?

— Nahiko egoera kaskarra da. Atharratzen, behintzat, baserrietan gorde da, baina kalean frantsesa zen nagusi.

— Alde handia dago liburuan agertzen zenaren eta benetako zubereraren artean?

— Ez. Esperientzia bera da desberdina: gauza bat da liburuan puntuz puntu ikastea, eta beste bat errealtate hori bizitzea, norbera ere berba egiten saiatzea...



— Zubererak ez zizun beldurrik ematen?

— Banekien gure euskalkiarekiko alde handia dagoela, eta hala izan zen; baina merezi du hara joatea eta praktikatzea, "belarria egitea" eta, zergatik ez, haien moduan berba egiten hastea. Nik neuk azken hori ez nuen lortu, baina entzutera, behintzat, ohitu nintzen.

— Hegoaldeko euskara ikasle bati gomendatuko zenioke Iparraldera joatea?

— Nire ustez, euskara ikasle batek euskara batua eta bere euskalkia ikasi behar ditu lehenengo. Behin hori lortu eta gero, interresa baldin badu, ondo etorriko litzaioke Iparraldera joatea. Edozelan ere, nire aholkua hau da: Ipar Euskal Herria hor bertan dugu, baina hegoaldekook ez dugu ezagutzen. Ni han izan nintzanean, hango batzuek, euskaldunak izan arren, ez zuten harremanik ikusten, euskaldun moduan, euren eta nire artean; eta hori gogorra egin zitzaidan. Hori xe da nire gomendioa, hots, Iparraldera gehiago joan beharko ginatkeela, eta gure arteko hartu-emanan sendotu.

«Hango batzuek, euskaldunak izan arren, ez zuten harremanik ikusten euren eta nire artean»

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzak. Hurrengo ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegorako interesgarri diren gaietan atzerrian espezializatorako ikasketak egiteko dirulaguntzak. Epea: maiatzak 24.

• Leonardo da Vinci programa. Europako enpresatan praktikak egiteko aukera. Ikasketak bukatu berriak izanik, lan esperientziarik ez dutenendako. Epea: ekainak 15.

■ LANA

• Arrasateko Udalak delinantea, bi peoi eta antolaketa teknikaria behar ditu. Aldi baterako. Epea: maiatzak 22.

• Oñatiko Udalak herriko kiroldegirako begirale-soroslea eta harreragilea behar ditu. Epea: maiatzak 28.

• Arrasateko Udalak deialdia egin du emakumeen aukera berdintasun agentea aldi baterako kontratatuzko. Epea: maiatzak 31.

■ TXARTELAK

• Nazioarteko gazte, ikasle edo aterpetxe txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Gazte Bulegoan.

■ UDAKO EKINTZAK

• Txatxilipurdiren eskutik, ekain eta uztailean hainbat ekintza egiteko aukera. LH-ko 5. mailatik DBH-ko 4. mailara arteko ikasleendako programa. Arrasaten, Beitzan, Orion edo Kantabriaren egonaldiak egiteko aukera.

■ HEZKUNTZA

• Erdi eta goi mailako heziketa zikloak ikasteko, izena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65



Pili Herrero Bolintxo okindegikue

Pili eskarmentu haundiko emakumie da, izan be, 37 urteko mondragoetar honek hainbat lan probau dittu. Beste batzuen artien, Fagorren, Eroskin, eta denda baten egin dau lan Pilarrek, baina azken bost urrietan Bolintxon ikusi dogu, ogixa saltzen.

Esaidazu guzur bat.

Txokolate gustetan jat.

Amets bat.

Biajetie.

Amesgaizto bat.

Familixie sufriduten ikustie.

Egin dozun azken biajie?

Abuztuan Murtzian izen nitzen.

Txartel horixe, nori?

Inori be ez.

Eta txartel gorrix?

Inori be ez.

Film bat? Liburu bat? Disko bat?

Solas filma; Ez dot askorik leiduten; Paul McCarthyren edozein disko.

Gustora egitten dozu zeure lana?

Bai.

Dendari ez baziña, zer izengo zitzake?

Erizain.

Animalixe izetekotan, zer?

Katue.

Drogak legeztatuko zenittuzke?

Ez.

Eta prostituziñue ?

Iguel bai.

Tabernetako poteue ala diskotekak?

Tabernetako poteue.

Etxeko zapatillak ala takoidun zapatak?

Etxeko zapatillak.

Arrasateko leku bat?

Dana gustetan jat.

Alkate izengo baziña, zer hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo baziña?

Lan gatxa da hori.

Bizio bat?

Musikie.

Zer erizten dotsezu Arrasate Press Goienkaria barruan sartzari?

Oso ideia ona dala.

Zer gehittuko zeunke Arrasate Pressen? Eta zer kenduko zeunke?

Ez neuke ezer gehittuko, eta ezta kenduko be, dagoen moduen oso ondo dago.

Gustoko mendi bat?

Udalatx.

Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?



Seguru nere
senarrak
elkarrizketa hau
leiduten dauenien
barrez lehertuko
dala.

Bartzelonara.

Zeure bizitzan ezagututako pertsona interesgarri bat?

Neure senarra.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Richard Gere.

Desleiala izetekotan, zeñekin?

Ez nitzake desleiala izengo.


Telebista programa bat? Irratsaio bat?

Informatibuek; radixue ez dot askorik entzuten.

Durango eta Arrasate arteko liskarrak

Igo Autobusera Astelehenean, 10:40ean

Carta de Tregua y perdón izeneko dokumentua aurkitu berri dute. 1410. urteko eskuizkribu horretan, Durangok Mondragoe herriari barkamena eman zion aurrez izandako liskarrak amaitzeko. Historiari astindua emateko asmoz, Durangoko Gerediaga elkartera hurbilduko da astelehenean irratiko autobusa.



Badihardugu geltokia

Euskalkiaz aritzen gara astelehenero gure autobusak estreinatu berri duen geltokian. Mirian Txintxurreta Badihardugu elkarteko kidearen laguntzarekin, bolaluma gorria hartuko dugu batzuetan, egiten ditugun hankasartzeak zuzentzeko, baina ez beti; izan ere, geltokiaren asmoa ez da akats zerrenda osatzea bakarrik, galtzar dauden hitzak zein esarak ere berreskuratu gura ditugu.

Kutrelax-en berragerpena

Artxiboari sekulako astindua eman diogu *Arakatz*en saioan. Hainbat izan dira dagoneko berreskuratu ditugun irratsaioak. Datoren asteetan, berriz, monografikoa izango dugu.

Kutrelax irratsaioa gogoratzen duzue, ezta? Bada, Kaitin Allende kazetaria egunotan gurekin lanean dugula eta, *Kutrelax* saioez betetako kutxa ekarri digu, nola ez, Belen Carenas-en laguntzaz.

kontzertuak

BERGARAKO **JAM ETA GO-JAMEKO**
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Maiatzak 27: **Arab Strab + Bright eyes**
(2 sarrera)

Egun hauetarako **SARRERAK**
zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Zein Kontzertu?

Bidalai gurera: Arrasate Press, Otarora 31
edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31**.



arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakatz.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak

Super
Armeko

- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08



Oraingo asteko argazki zaharra 50eko hamar-kadako da, bertso bazkari baten ondoren ateratakoa hain justu. Ikusten den lagun taldea urtero-urtero elkartzen zen abenduaren 8an "joxemariarren" eguna ospatzeko. Gure berriemaileak ez zekien zer dela eta ospatzen zen egun berezi hura, baina Baserri eta Uztapide bertsolariak etortzen ziren bazkaltzera eta herriko taberna batean egiten zuten bazkaria.

Urte hartan, gaur egun

desagertuta dagoen Etxazuri tabernan bazkaldu zuten. Argazkia tabernaren ondoan dago aterata, gaur egungo INE-Men bulegoaren parean.

Esaten dutenez, Baserriren eta Uztapideren lehen emanaldia profesional moduan Arrasaten izan ei zen, orduko Gurea aretoan. Orduan hasi ei ziren mota horretako bertso emanaldiak egiten.

Hauexek dira argazkian agertzen direnak: 1-ezezaguna, 2-"Arrixan", 3-"Fuldain", 4-Manuel Abasolo, 5-Facundo Kortabarría (Politenakoa), 6-Cayo Atxa, 7-Lazpiur (Altu-

na baserrikoa), 8- Gabriel Heriz, 9- Patxi Zuazubiskar "Azeri", 10- Jose Maria Arabolaza (Osiñakoa), 11-elgoibartarra, 12-"Aramaixo", 13-14- elgoibartarrak, 15- Velez de Mendizabal "Vivillo", 16-Uriarte "Polvora", 17- Murguzur, 18- Juanito Arana "Mikelete", 29- Jose Maria Etxebarria, 20- Uribetxebarria, 21- Uribe, 22-Ormaetxea, 23- Segundo Azkoaga, 24- Jose Atxa, 25- Satur Mendizabal, 26-27- ezezagunak, 28-elgoibartarra, 29- Baserri, 30-Donato Amozarrain "Matruko", 31- Jose Azkoaga, 32-eze-

zaguna, 33- Uztapide, 34- Genaro Azkargorta, 35- ezezaguna, 36- Eusebio Arenaza, 37- Roberto Urtzelai, 38-39- ezezaguna, 40- Bixente Etxebarria "Ferrer", 41- Mendizabal "Telon", 42- Elkorobarrutia "Txirri", 43- Lucio, Udalakoa, 44- Garai, Udalako artzaina, 45- Arretxe, Udalakoa, 46- Prudencio Bengoa, 47- Zeziaga "Ponponio", 48- pasaitarra, 49- Luis, pasaitarra.

Argazkia eta berriemailea:

Mari Tere Azkoaga.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Ttnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



arrasate musikal



Nafarroa Etorbidea z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 06 83 / 943 77 05 40

- Taldeak:**
- Akordeoa**
- Big Band**
- Txistulariak**
- Baleta**
- Perkusioa**
- Musika banda**
- Orkestra**

Matrikulazio epea zabalik

Maiatzaren 21etik ekainaren 22 arte
arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara

**Animatu eta
matrikulatu!!**



Liderra segurtasunean

Egiazta ezazu

“Erabiltzaile eta kontsumitzaileen Erakundeak (OCU), “crash test” delakoaren bitartez egindako ikerketaren arabera, Ford Focus-ek puntuaziorik altuena lortu du segurtasunean, beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko 2.064. zenbakian argitaratua

Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
Audi A3 ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
Suzuki baleno **

Ekainetik aurrera...

TDCi

Ford Focus berria
115 CV



MUGARRI



DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54